

Beste iturrietatik

Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren Liburu Osagarria eta ekintzara bideratutako ikuspegia¹

Artikulu honetan, labur deskribatuko da zer den *Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren Liburu Osagarria*, zer eduki dituen, zer paradigma-aldaketa sustatu nahi duen eta nola garatu den. Halaber, ekintzara bideratutako ikuspegia landuko da; ikuspegi orokorra emateaz gain, "gizarte-eragile" kontzeptua azalduko da eta, azkenik, ikuspegiaren hiru alderdi nagusiak eztabaidatuko dira: posibilitateak (*affordances*), eragiletza (*agency*) eta ataza kolaboratiboak.

Gako hitzak

atazak, EEMB, EEMB LO, ekintzara bideratutako ikuspegia, eragiletza, gizarte-eragilea

1. EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKO BATERATUA ETA HAREN LIBURU OSAGARRIA

Europako Kontseiluak 1996an argitaratutako behin-behineko bertsioa zenbait urtez kontsultatu, esperimentatu, eta 2001ean *Europako Erreferentzia Marko Bateratua* (EEMB) argitaratu ondoren², estatu kideek maiz eskatu zioten Europako Kontseiluari deskriptoreak eguneratu eta/edo osatu zituzan, batez ere bitartekotzarako deskriptoreekin zein literaturari eta online elkarreraginari lotutako iritziei dagozkienekin. Eskatu izan da, halaber, ikasle gazteentzako eta zeinu-hizkuntzetarako bertsio berriak sortzeko, eta gehiago garatzeko A1 eta C mailetan jasotako

¹ Jatorrizko argitalpena:

North, B. (2022). The CEFR Companion Volume and the action-oriented approach. *Italiano LinguaDue*, 14(2). <https://doi.org/10.54103/2037-3597/19566>

Aldizkariaren eta egilearen baimenaz egokitua, itzulia eta argitaratua.

² Editorearen oharra.

Jatorrizko argitalpena 2001ekoa da; 2005ean eman zen argitara euskaraz. Azken bertsio hau da testuan zehar aipatuko dena.

deskriptoreen xehetasunak" (Europako Kontseilua, 2022, 13. or.)³. Gainera, "2001eko edizio horren harira, askok aipatu zuten dokumentu konplexua zela oso eta hizkuntzaren arloko langileek zailtasunak izan zituztela erabiltzeko" (Europako Kontseilua, 2022, 21. or.). Beraz, 2013ko maiatzean deskriptoreak eguneratu eta handitzea erabaki zen, eta, 2014-2016ko ikerketa-proiektuaren ondoren, bertsio berri eta erabilerraz bat sortu da. "EEMBari dagokion ikuspegiaren alderdi nagusiak 2. atalean azaltzen dira; zehazki, bi ideia giltzarritan sakontzen da: batetik, EEMBa tresna bat dela bigarren hizkuntzen edo atzerriko hizkuntzen kalitatezko irakaskuntza eta ikaskuntza bultzatzeko, eta orobat hezkuntza eleaniztuna eta kulturantzuna sustatzeko" (ibid.).

Europako Kontseiluaren esanetan, ikertzaileek 2001eko edizioa kontsultatzen jarraitu nahi badute ere (esparru kontzeptualak oraindik balio du eta eskura dago EEMBaren webgunean), "EEMBaren Liburu Osagarriko marko eguneratua erabilerrazagoa izango da irakasleek eta irakasleen hezitzaileek ikasteko, irakasteko eta ebaluatzeko" (Europako Kontseilua, 2022,). Gainera, argi eta garbi dio: deskriptore argigarrien 2020ko edizio eguneratu eta zabalduak 2001eko bertsioa ordezkatzeko duela (Europako Kontseilua, 2022, 21. or.).

Hain zuzen ere, EEMBko deskriptoreak bi zentzutan dira argigarriak: batetik, *adibideak* dira; inor ez dago horiek erabiltzera behartuta, eta testuingurura egokituta eta/edo gehiago landuta erabili beharko lirateke. Bestetik, ez dira saiatzen den-dena maila guztietan sistematikoki deskribatzen; izan ere, maila bakoitzeko kategorian nagusi den portaera linguistikoaren adibideak ematen dituzte. Hori gaizki interpretatu ohi da: alderdi garrantzitsu guztiak maila bakoitzean deskribatuko balira (posible balitz), kategoria bakoitzeko deskriptore pila bat genituzke, alkandora hertsagarri baten moduan. EEMBa eta portfolioa garatzeko gomendatu zuten gobernu arteko Sinposioko ordezkari nazionalak oso argiak izan ziren: "sistematikoa" izatea baino nahiago zuten "ezaugarri nagusiak" ematea (Council of Europe, 1992; North, 1992). EEMBko deskriptoreak irekiak dira –adibidez, EEMBan oinarritutako hainbat iturritako deskriptoreak sartu ziren 2020an– eta horrek erreferentzia gisa onartzea bermatzen du, eta ez "aplikatu" beharreko estandar gisa. 2007ko gobernuen arteko Sinposioko ordezkariak adierazi zutenenez, nahiz eta erreferentzia-maila komunaren osotasuna errespetatu behar den –zeren eta horrek "espazio partekatuta" batean sareak eta sinergiak sortzea errazten baitu–, oso interesgarria da EEMBa hizkuntzen irakaskuntza erreformatzeko duen potentziala (Goullier, 2007). EEMBa eta haren *Liburu Osagarriak* egungo praktikaz gogoeta egiteko heuristika bat eskaintzen dute.

2001eko EEMBa hizkuntzen irakaskuntzaren ikuspegi berri baten aitzindari izan zen honako alderdi hauetan:

- i. Erreferentzia-maila komunak eta deskriptore-eskala argigarriak eskaintzea, era horretan curriculum-plangintza, irakaskuntza eta ebaluazioa lerrokatzeko (= lerrokatze eraikitzailea; Biggs, 2003).
- ii. Lau komunikazio-modu aurkeztea –ulermena, ekoizpena, elkarreragina eta bi-tartekotza– lau trebetasunak ordezkatzeko (ulermenean eta ekoizpenean sartu dira lehengo lau trebetasunak orain). Izan ere, lau trebetasunak komunikazioa deskribatzeko desegokitzen jo ziren luzaroan (ikus, adibidez, Alderson eta Urquhart, 1984; Breen eta Candlin, 1980; Brumfit, 1984).
- iii. Erabiltzaile/ikaslea gaitasunak eta estrategiak mobilizatu eta garatzen dituen gizarre-eragile kontzeptua.
- iv. Ekintzara bideratutako ikuspegia, atazatan ardaztua (EEMBko 7. kapitulu osoa eskaini zitzaion).
- v. Eta, azkenik, baina ez atzena, gaitasun eleaniztuna eta kulturantzuna.

³ Editorearen oharra.

Jatorrizko argitalpena 2020koa da; 2022an eman zen argitara euskaraz. Azken bertsio hau da testuan zehar aipatuko dena.

Hala ere, EEMBaren ikuspegia aurreratua zen eta, hainbat arrazoirengatik, hasieran, kontzeptu berri horietako asko gaizki ulertu ziren (adibidez, ekintzara bideratutako ikuspegia edo lau trebetasunetatik lau komunikazio-moduetara igarotzea), edo ez ziren aintzat hartu (adibidez, bitartekotza eta eleaniztasuna). Horren arrazoia, agian, maila eta deskriptoreen berehalako erabilgarritasun praktikoa izan zen, Coste (2007) kexatu zen moduan. Mailak eta deskriptoreak bizkor zabaldu ziren estatu kide, elkarte eta erakundeen artean, segur aski jendea horrelako irtenbide baten bila zebilelako orduantxe (Goullier, 2007). Portok adierazi zuenez (2012), eta Byram eta Parmenter-ek (2012) berretsi zuten, EEMBa erakargarri bihurtu zen hezkuntza-ministerioentzat zeren eta tresna praktikoa horiek eman zituen, *baita* kulturartekotasunaren ikuspegi progresiboa eta pedagogikoa ere.

EEMBko aitzindariekin Suitzan eta Kanadan egindako elkarrizketek iradokitzen dutenez (Piccardo et al., 2017, 2019), EEMBar ordena jakin batean ekiteko joera egon zen: lehenik mailak, gero deskriptoreak, gero atazak, gero ekintzara bideratutako ikuspegia, gero bitartekotza, eta azkenik eleaniztasuna. 2000ko hamarkadan, badirudi EEMBaren foku nagusiak mailak eta ebaluazioa izan zirela. Izan ere, azterketak lerrokatzeko EEMBaren eskuliburu bat argitaratu zen (Council of Europe, 2003), kasu-azterketa batzuen bidez (Martyniuk, 2010) pilotatu ondorengo (Council of Europe, 2009); halaber, EEMBan oinarritutako azterketak diseinatzeko bigarren eskuliburu bat plazaratu zen (ALTE, 2011)⁴.

EEMBa ezartzeko fase horrek eragin pedagogiko positiboa izan zuen, hizkuntza askotako hizkuntza-azterketak berrikustera eraman baitzuen; besteak beste, frantseseko DELF/DALF, gaztelaniako DELE, italiarako CILS eta CELI eta ingelesko Trinity sorta. *Hizkuntzen Portfolio Europarraren* bertsio asko egin ziren 2000. urtean, Suitzako prototipoari (Schneider et al., 2000) eta garapen-gidari (Schneider eta Lenz, 2001) jarraituz. Portfolioak deskriptoreak erabili zituen ikaskuntza-helburuak ezartzeko eta autoebaluatzeko. Horiek, EEMBan oinarritutako azterketa berriekin batera, EEMBan oinarritutako berrikuntza zabaldu zuten herrialde askotan (ikus, adibidez, Byram eta Parmenter, 2012; Figueras, 2013; Piccardo, 2006, 2020; Takala, 2013). Hala ere, fokua azterketetan eta deskriptoreen kontrol-zerrendetan jartzeak areagotu egin zuen EEMBa gaitasun-mailen bildumatzat hartzeko joera.

EEMBko beste kontzeptu batzuei dagokienez, aditu frankofono askok (adibidez, Bourguignon 2006, 2010; Puren, 2002, 2009; Richer, 2009, 2012) bereizi egin zituzten ekintzara bideratutako ikuspegia eta ikuspegi komunikatiboa, foku nagusia jarri baitzuten eragiletzan, autorregulazioan eta gaitasunak eta estrategiak mobilizatzean eta garatzean. Mundu anglofonoan, berriz, EEMBa curriculum komunikatiboak zehazteko tresna izan zen, "gai da" deskriptoreen bidez. "Gizarte-eragile" kontzeptua funtsezkoa da ekintzara bideratutako ikuspegiaren, baina oihartzun gutxi edo batere ez zuen izan ingelesezko literatura profesionalean. 2001ean EEMBa argitaratu aurretik eta justu ondoren, "autonomia" zen gako-hitza eta ez "eragiletza", baina "autonomia" kontzeptua oso murriztailea zen, hutsala ez esatearren (ikus Schmenk, 2005, 2008, eztabaidarako).

2001eko EEMBan, "testu baten bitartekari" eta "bitartekari gisa jardutea" besterik ez zen bitartekotza, baina landu egin zen Profile Deutch-en (Glaboniat et al., 2005) eta 2003an onartu egin zen Alemanian (Kolb, 2016; Reiman eta Rössler, 2015) eta Grezian (Dendrinos 2006, 2013; Stathopoulou, 2015). Nolanahi ere, Kolbek dioenez (2016, 52. or.), batzuetan, hartzaille jakin baten testuingurua ez dago behar bezain zehaztuta eta emandako testuingurua laburpen baterako aitzakiatzat har daiteke; halaber, bitartekari gisa jarduteko atazak, askotan, banakako idazlan gisa aurkezten dira, sarritan elkarrizketek hutsuneak dituztela, eta badirudi hala jarduteak zentzu txikia duela, proba-egoera baten mugak gorabehera.

⁴ Jatorrizko argitalpena 2011koa da; euskarazko bertsioa, berriz, 2014koa. Azken hau da bibliografian jaso dena.

Eleaniztasunari dagokionez, EEMB proiektuko zuzendari John Trimek bere nahigabea adierazi zuen 2007ko Sinposioan (Trim, 2007, 51. or):

Most users of the CEFR have applied it only to a single language but its descriptive apparatus for communicative action and competences, together with the 'can-do' descriptors of levels of competence, are a good basis for a plurilinguistic approach to language across the curriculum, which awaits development.⁵

Irakaskuntza eleaniztunaren aitzindari batzuek gain, batez ere Frantzian (adibidez, Auger, 2005), eleaniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna ez ziren aintzat hartu 2012-2015 arte (Candelier et al., 2012; Conteh, Meier, 2014; May, 2014; Piccardo, Puzos, 2015; Taylor, Snodden, 2013). Orduan ere, askotan ez ziren bereizi eleaniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna (ikus, adibidez, Piccardo et al., 2022a). Azkenaldian, baina, urte urte ugartuz joan dira eleaniztasunari buruzko aipamenak Google Scholarren, eta hizkuntza-aniztasunari buruzkoak gutxitzen; *Handbook of Plurilingual Language Education* argitaratu berri da (Piccardo et al., 2022b), eta eleaniztasunaren arloko hainbat pedagogia agertu dira (ikus, adibidez, Choi eta Ollerhead, 2018; Lau eta Van Viegen, 2020; Piccardo et al., 2022).

2. LIBURU OSAGARRIAREN EDUKIA

Labur esanda, *Liburu Osagarriak* EEMBa eguneratzen eta osatzen du deskriptoreen eskala berrien bidez, EEMBko zenbait konstruktuz zehaztu eta garatzen ditu (bereziki bitartekotza, fonologia eta eleaniztasuna), eta EEMBaren ekintzara bideratutako ikuspegia fintzen du. Lau trebetasun isolatu ez baizik hizkuntza-jardueren ikuspegi integratua azpimarratzen du, irrealia baita lau trebetasunak isolaturik hartzea –horretaz hizkuntza-aztertzaileak ere ohartzen hasiak dira (adibidez, Bachman eta Palmer, 2010)–. EEMBa egungo paradigma aldatzen lagundu nahi du, disekzioaren ikuspegi tradizional kartesiarretik (adibidez, lau trebetasunak, hizkuntzak zorrotz bereiztea) ikuspegi integratzaile (Harris, 1981; Orman, 2013), ekologiko (van Lier, 2004, 2007) eta konplexura (Larsen-Freeman, 2017; Larsen-Freeman eta Todeva, 2022).

Liburu Osagarriko 2. kapituluak EEMBa irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako dituen funtsezko alderdiak azaltzen ditu, irakasleen prestakuntzan oso erabilgarria izan daitekeen testu ilustratu labur batean. Testu horrek EEMBko helburu nagusiak azaltzen ditu eta EEMBko eredu eta eskema deskribatzaileak lantzen ditu, eta eleaniztasunean, ekintzara bideratutako ikuspegi eta bitartekotzan jartzen du fokua. Bitartekotzari dagokionez, EEMBa erabiltzailea/ikaslea gizarte-eragiletzat hartzeak erdigunean ipintzen du bitartekotza (Piccardo, 2012); deskriptore berriak garatzeko orduan funtsezkoa da. *Liburu Osagarriko* 2. kapituluak lantzen dira erreferentzia-maila komunei eta deskriptoreei buruzko gaizki-ulertuak, mailak kontzeptu holistiko gisa harturik, eta ez talde jakinen beharren profilak eta gizabanakoen gaitasun desberdinen profilak sortzeko tresna gisa.

Arestian aipatu bezala, *Liburu Osagarriko* 3.etik 6.era bitarteko kapituluetan dator deskriptore argigarrien multzo osoa, zeinu-gaitasunaren deskriptoreak barne (6. kapituluak), gaitasun linguistiko, soziolinguistiko eta pragmatikoaren arabera antolaturik, hizkuntza-gaitasun komunikatiboen antzera (5. kapituluak). Gainera, deskriptoreen eskala bakoitzak justifikazio labur bat du orain, eskalaren fokua eta haren garapena azaltzen duena. Hizkuntza-jarduera komunikatiboen deskriptoreak (3. kapituluak) asko zabaldu dira ulermenerako, bai eta A1 (aurre-A1 gehituta) eta C mailetarako ere. Gaitasun eleaniztunaren eta kulturaztunaren deskriptoreak 4. kapituluak jaso dira, 3. kapituluaren amaieran, bitartekotzaren ondoren, bien arteko lotura estua nabarmentzeko, Piccardok (2022) aipatutako moduan.

⁵ "EEMBaren erabiltzaile gehienek hizkuntza bakar bati aplikatu diote hura, baina ekintza eta gaitasun komunikatiboetarako dauzkan tresnak eta "gai da" deskriptoreak oinarri onak dira hizkuntzaren ikuspegi eleaniztunerako, eta garatu beharra dago."

Bitartekotzaren, online elkarreraginaren eta gaitasun eleaniztun/kulturaniztunaren deskriptore-eskala berriez gain, beste hiru eskala berri daude ulermen, ekoizpen eta elkarreraginerako: "Plazer soilagatik irakurtzea", "Informazioa ematea" eta "Telekomunikazioak erabiltzea", hurrenez hurren. 5. kapituluan, ahoskeraren kontrolerako eskala berri bat dago (ikus Piccardok, 2016), soinu-artikulaziorako eta prosodiarako azpieskalekin (= azentua eta intonazioa). Eskala fonologiko berri horrek jatorrizko hiztunen arauak saihesten ditu, fokua ulergarritasunean jarriz eta C2ko hiztun askok azentu nabarmena dutela onartuz. EEMBko webgunean EEMBan oinarritutako ikasle gazteen-tzako deskriptore-bildumak daude 7-10 eta 11-15 adin-taldeentzat (Szabo eta Goodier, 2018a, 2018b).

Azkenik, *Liburu Osagarria*n eranskin batzuk daude. 1-4 eranskinen EEMBko 1-3 taulen eskala laburtuen bertsio eguneratuak ematen dituzte, gehi idatzizkoaren ebaluaziorako lauki-sare bat, alde zurretik azterketa eta EEMBa lotzeko Eskuliburuaren C4 taulan aurkeztua (Council of Europe, 2009). Ondoren, 5. eranskinean, EEMBko lau arloetako –arlo publikoko, pertsonaleko, laneko eta hezkuntza-arloko– egoeren adibideak eskaintzen dira elkarreraginezko online eta bitartekotzaren deskriptore bakoitzarentzat. 6-9 eranskinen garapen-proiektuekin lotura dute eta baliabideen zerrenda da azkena.

3. EEMB-KO DESKRIPTORE BERRIAK

Deskriptoreen garapena eta balioztatzea labur azaltzen da *Liburu Osagarria*ren 6. eranskinean, eta xeheki deskribatzen dute North eta Piccardok (2016, 2019); beraz, labur aipatuko dugu. Proiektuak hiru etapa izan zituen, eta apur bat gainjarri ziren: lehenik, 2001eko eskalak eguneratu ziren, batez ere C eta A1 mailetan, aurre-A1 gehituta (2014/2015); bigarrenik, bitartekotzaren deskriptoreak eta horrekin lotutako arloak garatu ziren (2015/2016); eta, azkenik, zeinu-gaitasunen deskriptoreak sortu ziren (2017-2019). Praktika-komunitateetako ohiko zirkulu zentrokideetan egituratu zen proiektuko taldea (Wenger-Trayner eta Wenger-Trayner, 2015). Lau adituz osatutako egile-taldea aritu zen lanean, posta elektronikoen eta ohiko bileren bidez, beste lau adituko batzorde bat eratu zen iruzkinak eta iradokizunak egiteko, gehi 20-30 aholkulari, hiru bileretara gonbidatuak 2014, 2015 eta 2016ko uztailean. Azkenik, 140 erakundetako sare bat antolatu zen (2015. urtean 189ra iritsi ziren), gutxi gorabehera 30 kideko bost taldetan, sailkapena erakundearen arabera eginda. Erakunde horietako bakoitzak koordinatzaile bat zuen eta balioztatze-jardueren hiru fase egin ziren 2015eko otsailetik abendura. Lehenengo bi balioztatze-jarduerak binaka egin ziren aurrez aurreko tailerretan; hirugarrena, berriz, banakako lana izan zen, eta talde batzuek aurrerako tailer bat egin zuten.

Gainera, 2015eko hiru fase horien ondoren, 2016. urtearen hasieran, bi azpiproiektu izan ziren: batetik, gaitasun eleaniztunaren eta kulturaniztunaren deskriptoreak berriz balioztatze fase bat (*Liburu Osagarria*ko 4. kapitulua, North eta Piccardok 2016an deskribatua), eta, bestetik, kontrol fonologikorako eskala berri bat, Piccardok (2016) deskribatua, 2001eko eskalen artean betidanik ahulenetakoa zela onartua baitzegoen (North, 2000).

Proiektuaren hiru fase nagusietan errepikatu egin ziren EEMBko/Portfolioko jatorrizko deskriptoreak sortzeko burutu ziren 1994-1996ko proiektu suitzarreko faseak (North, 1995, 1996, 2000; North eta Schneider, 2000; Schneider eta North, 2000) baina maila zabalagoan eginda. Balioztatze-fase bakoitzerako, deskriptoreen zirriborroa galdetegietan jarri eta horiek bost taldeetan banatu ziren, koordinatzaileari eta parte-hartzaileei jarraibideak emanda. I. faseko tailerretan (1.000 parte-hartzaile), kideek, binaka, deskriptore bakoitzaren kategoria identifikatzean zetzan gakoa, bai eta haren argitasuna ebaluatzean ere, erabilgarritasun pedagogikoa eta mundu errealeko hizkuntza, eta, nahi izanez gero, hobekuntzak iradokitzea. II. faseko tailerretan (1.300 parte-hartzaile), EEMBko lerrokatze-eskuliburuan iradoki ziren trebatzeko jarduera batzuk egin ondoren (Council of Europe, 2009), bikoteek lehenik deskriptoreen maila eztabaidatu zuten, eta gero banaka erantzun zieten galderei. III. fasean deskriptoreak kalibratzeko asmoz

datuak bildu ziren (3500 erantzun erabilgarri), 1994-1996ko proiektu suitzarrean bezala (North 1995, 1996, 2000; North eta Schneider, 1998; Schneider eta North, 2000). Parte-hartzaileei eskatu zitzaizkien ondo ezagutzen zuten pertsona bat izan zezatela buruan (lankidea, laguna, euren burua), eta neurtu zezatela pertsona hark zenbateraino egin zezakeen deskriptoreak zioena, proiektu suitzarreko 0-4 kalifikazio-eskala erabiliz. I. eta II. faseetako datuak kualitatiboki aztertu ziren; II. eta III. faseetakoak, berriz, kuantitatiboki aztertu ziren, Rasch eskala-ereduarekin. Deskriptore bakoitzaren balioa proiektu suitzarreko eskala matematikoarekin parekatu zen, eskala hori EEMBko mailen azpian baitago.

Azkenik, aparteko proiektu batean, non autore hau aholkulari zientifiko izan zen, zeinugaitasunen hainbat alderdiren deskriptoreak garatu ziren (*Liburu Osagarriko* 6. kapitulu), bi fasetan: zeinu produktiboa (2017-2018) eta besteen zeinuak interpretatzeko gaitasuna (2018-2019) (Keller, 2019; Keller et al., 2017, 2018). Azken etapa batean, egokitu behar ziren EEMBko deskriptore *guztiak* editatu ziren, inklusiboak izan zitezzen (hau da, zeinu-hizkuntzei ere aplikatzeko) eta, ingelesez, behintzat, generoari dagokionez neutroak izateko.

Liburu Osagarriko 3-6 kapituluetakoa EEMBko deskriptoreak bat datoz 2001eko EEMBko deskriptoreekin, lehendik zeuden haiek zabalduz eta osatuz. 2001eko eskalak eguneratu egin dira, eta deskriptore berriak daude bitartekotzarako eta harekin loturako arloetarako, bai eta zeinu-gaitasunetarako ere. EEMBko mailak ez dira aldatu. Bitartekotza eta harekin lotutako arloak direla eta, adibide baten bidez azaltzen da 2001etik koherentzia hori txostenaren amaieran (North eta Piccardo, 2016): "Erreferentorio kulturantzunean oinarritzea" eta "Eremu kulturantzunak bideratzea" eskala berriak alderatzen dira 2001eko "Egokitasun soziolinguistikoa" eskalarekin. Eskala desberdinak lotzen asmatzeaz gain, deskriptore guztiak ekintzara bideratuta daude: norbaitek maila jakin batean ustez nola jardun dezakeen deskribatzen da.

Mundu guztia ez dago ados gaitasun eleaniztun/kulturantzunaren arloan ekintzara bideratutako ikuspegi bat hartzearekin, eta hori hizkuntza-gaitasuneko mailekin lotzearekin, hala nola A2 eta B1ekin (ikus, adibidez, Cavalli, liburu honetan; Coste 2021a, 2021b). Costek inoiz ez ditu gogoko izan erreferentzia-maila komunak deskriptoreak (adibidez, Coste, 2007), eta orain ezta eleaniztasunaren/kultura-aniztasunaren deskriptoreak (adibidez, Coste 2021a, 2021b) eta bitartekotzaren deskriptoreak ere (ibid.), nahiz eta horietako asko zirriborro gisa agertzen diren Coste eta Cavalliren lanean (2015). Dena dela, arestian deskribatutako ikuspegiaren oinarri zientifikoaz gain, deskriptoreek onarpen zabala jaso zuten erakundeei, adituei eta Europako Kontseiluko estatu kideei 2017-2018an egindako kontsultan. Hain zuzen, eleaniztasunaren eta kulturantzunaren deskriptoreak izan ziren estimatuenak estatu kideen artean. Garapen-proiektuan adierazi genuen moduan, gure ustez, eta Augerren eta Louisen ustez ere bai (2009), gaitasun eleaniztuna eta kulturantzuna ezin hobeto garatzen da arazoak ebaztera bideratutako eta ekintzara bideratutako ikuspegiaren bidez, eta ez elementuen taxonomien bidez. Ikasleak A2, B1 edo B2 direnean garrantzitsuak izan daitezkeen alderdiak deskribatzen dituzten deskriptore gutxi batzuek helburu zehatzak eskaintzen dizkiete maila horietako irakasleei, bai eta eleaniztasuna bultzatzeko jarduerak egiteko inspirazioa ere. Aldi berean, deskriptore horiek ikaslearen *eragiletza* sustatzeko helburu jakin batzuk ematen dituzte (Bandura, 1989, 2001). Azkenik, deskriptoreak mailaz maila emateak argi uzten du gaitasun eleaniztuna eta kulturantzuna dinamikoa dela eta garatzen ari dela, eta ez dela jarrera estatikoa (ikus *Liburu Osagarriko* 2.3 atala).

4. EKINTZARA BIDERATUTAKO IKUSPEGIAREN NONDIK NORAKOA

1. atalean aipatu bezala, 2001eko EEMBa argitaratu ondoren, ekintzara bideratutako ikuspegia, oro har, paradigma berritza hartu zen Frantzian, baina ez zen aintzat hartu mundu anglofonoan, ikuspegi komunikatiboari "gai da" deskriptoreak gehitzea besterik

ez zelakoan, askoren ustez. *EEMBaren Liburu Osagarriak* ekintzara bideratutako ikuspegia argi eta garbi adierazi duenean eztabaida antzu samarra sortu da (Little eta Figueras, 2022), ea *Liburu Osagarriak* ekintzara bideratutako ikuspegia garatu duen edo 2001ean den-dena bertan zegoen. Hain zuzen ere, ekintzara bideratutako ikuspegiaren printzipioak bazeuden 2001eko EEMBan, baina fokua EEMBko mailetan eta deskriptoreetan jarri zenez, erabiltzaile gehienek ez zioten erreparatu. Jakina, salbuespenak izan ziren, batez ere Frantzian (adibidez, Bourguignon, 2006, 2010; Puren, 2002, 2009; Piccardo, 2010, 2014), eta 1990eko hamarkadaren amaieran EEMBa agertu eta hurrengo 20 urteetan, profesionalen lanak –ikuspegi soziokonstruktibista/soziokultural, kolaboratibo eta ekologikoen eraginez– are gehiago garatu zuen atazatan oinarritutako hizkuntza-irakaskuntza [*task based language teaching*, TBLT] (AOHI: ikuspegi komunikatiboaren "bertsio indartsua": Larsen Freeman eta Andersen, 2011, 150. or.), sarritan heldu irakaskuntzan (adibidez, Van den Branden, 2006).

EEMBaren Liburu Osagarriak honela aurkezten du ekintzara bideratutako ikuspegia:

Europako Erreferentzia Markoak bultzatzen duen ikuspegiak, ekintzara bideratutako ikuspegiak, aldaketa bat dakar: ez da, aurreko syllabusetan egiten zen moduan, hizkuntza-egituretan barna doan garapen lineal bat proposatzen edo aurrez ezarritako nozioen eta funtzioen multzo bat irakasten; aitzitik, premiak aztertu eta eguneroko bizitzako zereginetara bideratzen da programa didaktikoa, eta propio aukeratutako nozio eta funtzioen inguruan eraikitzen da. Hala, gaitasunak sustatzen dira, "Gai da" deskriptoreen bidez, eta ez da gabezien ikuspegi bat lantzen, zeinak soilik erreparatzen baitio ikasleek oraindik ikasi ez dutenari. (Europako Kontseilua, 2022, 28. or.)

Ekintzara bideratutako ikuspegiaren xedea aurreko ikuspegiak baino zabalagoa da, politikoagoa, ez hain instrumentala, eta hori ez da harritzekoa, giza eskubideen erakunde europarretik baitator, Europako Kontseilutik alegia. Purenek dienez (2009, 124. or.), kontua ez da, 1970eko hamarkadaren hasieran bezala, ikasleak hezteko atzeritarrekin harremanak izateko eta komunikatzeko; elkarrekin harmonian bizitzeko gai diren gizarte kulturantzun eta eleaniztunetako herritarrak hezteko da kontua, eta ikasleak eta profesionalak denboran zehar gai izatea atzerriko hizkuntza/kultura batean elkarrekin lan egiteko.

Ekintzara bideratutako ikuspegiko kolaborazioak eta ko-eraikuntzak eraman zuen Puren (2002) *co-action* hitzera [elkarrekin ekin], eta Bourguignon (2006) *comunic-action* hitzera, zerbait berri sortzeko orduan elkarrekin lankidetzara eta eragiletzara adierazteko. Ikuspegi komunikatiboaren eta ekintzara bideratutako ikuspegiaren arteko aldeak ongi azaltzen dituzte Bourguignonek (2006), Purenek (2009) eta Piccardok (2014). Hain zuzen ere:

- ikasgelan hizkuntza erabiltzen *orain* irakastea, eta ez etorkizuneko beharrei begira;
- zenbait gaitasunen eta estrategiaren garapenari erreparatzea, eta ez hizkuntza jakin bat praktikatzeari;
- atazak aukera aniztunekoak eta zabalak izatea, eskaintzen dituzten posibilitateen [*affordances*] aberastasunaren ikuspegitik;
- erabiltzaile/ikasleen eragiletza, maniobra-askatasuna eta erantzukizuna;
- hainbat ikasgairaren sekuentzia didaktikoak "agertoki" batean bilduta antolatzea;
- zerbait ekoizteko xedea, ikasleek "misio" bat izatea, sormena sustatzen duten baldintzekin (Bourguignon, 2006, 2010);
- konplexutasuna onartzea: ataza bera, saiatu eta berriz saiatzeko zirkuluetan antolatzea lana, erabiltzaile/ikasleek behar duten hizkuntza berria, zenbait unetan erabilitako hizkuntza(k), irakaslearen itxurazko kontrolik eza (baina berak ematen ditu bitartekotza eta aldamiok, arrakasta izateko).

Ekintzara bideratutako ikuspegiaren, ekintzak bideratzen ditu irakaskuntza eta ikaskuntza, bi maila osagarritan:

- a) curriculumean eta ikasketen plangintzan;

b) eskolan gauzatzeko orduan.

Lehenik eta behin, curriculumaren eta plangintzaren mailan, ekintzara bideratutako ikuspegiak ikasleen bizitza errealeko behar komunikatiboetatik abiatuta planifikatzen du, batzuetan atzeranzko diseinua deitu ohi zaion prozesuan (Richards, 2013; North et al., 2018); plangintza, irakaskuntza eta ebaluazioa lerrokatzea (Biggs, 2003; North, 2014); ikasleei ikasprozesuan parte harraraztea, zenbait gauza zergatik gertatzen diren adierazteko deskriptoreen bitartez "seinaleak jarritz" (North, 2014) eta azkenik, atazen/agertokiaren aurrean helburu zehatzak sortzeko deskriptoreak erabiltzea.

Bigarrenik, ikasgelan, ekintzara bideratutako ikuspegiak ataza esanguratsu eta kolaboratiboak ematea eskatzen du:

- a) ekimena ahalbidetzea, ikasleek eragiletza estrategikoki erabil dezaten;
- b) ikasleentzat misio zehatz bat izatea (normalean, produktu bat, artefaktu bat sortzea);
- c) elkarreraginean bitartekotzaren bidez zentzua ko-eraikitzea;
- d) baldintzak eta mugak ezartzea;
- e) "hizkuntza-politika" zehaztea, hizkuntza bat edo bestea zein fase/jardueratan erabiltzeko eta jakiteko noiz den libre "eleaniztuntzea" [*plurilinguaging*] (Piccardo, 2017, 2018).

Bourguignonek dioenez (2006, 66. or.), hizkuntza bat erabili behar izan ondoren proiektu bat bukaeraraino eramateak jakinmina areagotzea ekar dezake eta ekarri beharko luke; hala, ekintzak bideratzen du ikaskuntza.

5. IKASLEA GIZARTE-ERAGILE GISA EKINTZARA BIDERATUTAKO IKUSPEGIAN

Ekintzara bideratutako ikuspegian, erabiltzailea/ikaslea "eragile sozial bat da, mundu sozialean ekiten duena eta bere ikaskuntza-prozesuaren jabe dena" (Europako Kontseilua, 2022, 28. or.). Arestian aipatutako ataza/agertoki-motetan adierazi den legez, eskola testuinguru sozial erreal gisa ulertzen da, eta ezagutza hila jaso beharrean, ikasleek, gizarte-eragile gisa, edukia eta komunikazioa ko-eraikitzen ikasten dute ataza kolaboratiboak eginez *-helburu nagusia hizkuntza izan gabe-*, hizketan *aritura* esanahia erakitzeke eta bitartekari izateko. Gizarte-eragileak dira, testuinguru sozial jakin batean erabiltzen dute beren eragiletza, egoera zehatz batean; egoerak baldintzak eta mugak ezartzen ditu, eta horiek sormena suspertzen dute. Mugen barruan, gizarte-eragileak bere baliabide *guztiak* mobilizatzen ditu (kognitiboak, emozionalak, linguistikoak eta kulturalak) iterazio-ziklotan, ekintza planifikatu, emaitzak sortu eta monitorizatzeko. Ataza horiek eginez, ikasleek beren gaitasunak eta estrategiak garatzen dituzte.

Kontuan hartzen badugu, [ekintzara bideratutako] ikuspegi horren arabera, ikasleak eragile sozialak direla, orduan, ikaskuntza-prozesuaren parte izan behar dute, eta, haiekin komunikatzeko, seguru asko, deskriptoreak erabili beharko dira. Gainera, ikuspegi hori gauzatzuz gero, onartu egin behar da hizkuntzen ikaskuntzak eta hizkuntzaren erabilerak izatera soziala duela eta alderdi sozialak eta alderdi indibidualak elkarri eragiten diotela ikaskuntza-prozesuan. Ikasleak ikusten baditugu hizkuntza-erabiltzaile gisa, horrek esan nahi du, xede-hizkuntza ikasgelan erabili behar dela; alegia, ikasleek hizkuntza erabiltzen ikasi beharko dutela eta ez dituztela hizkuntzari buruzkoak soilik ikasi beharko (irakasgai gisa). Kontuan hartzen badugu ikasleak izaki eleaniztunak eta kulturaztunak direla, orduan, baimena eman beharko diegu, premiazkoa denean, beren hizkuntza-baliabide guztiak erabiltzeko, eta, era berean, hizkuntzen eta kulturen arteko antzekotasunak, erregulartasunak eta aldeak bilatzeko hauspoa eman beharko diegu. Oroz gain, ekintzara bideratutako ikuspegia gauzatzen badugu, helburu konkretuetara bideratutako atazak eta elkarlanean atazak egin beharko ditugu ikasgelan, eta foku nagusia ez da hizkuntza bera izango. Horretarako, bestelako emaitza edo ekoizpen bat bilatu beharko da (adibidez, irteera bat planifikatzea, poster bat egitea, blog bat sortzea, jaialdi bat diseinatzea, hautagai bat aukeratzea, etab.). Deskriptoreak erabil daitezke halako atazak diseinatzeko, eta ikuskatzeko, eta, nahi

izatera, ikasleen hizkuntza-erabilera (auto) ebaluatzeko atazan zehar. (Europako Kontseilua, 2022, 30. or.)

EEMBaren ekintzaren eredia, alegia, erabiltzailea/ikaslea eragiletza burutzen duen gizarte-eragiletzat hartzen duen ekintzara bideratutako ikuspegia, guztiz bateragarria da hizkuntzen irakaskuntzako teoria berriekin, ikuspegi ekologikoarekin nagusiki (van Lier, 2004, 2007), konplexutasun-teoriekin, batik bat sistema dinamiko konplexuen teoriarekin [CDST, *complex dynamic systems theory*] (De Bot et al., 2007; Larsen-Freeman, 1997, 2011) eta Vygotskyren lanean inspiratutako ikuspegi soziokonstruktibista/soziokulturalekin (Lantolf, 2000; 2011). Van Lierrek (2007), esate baterako, ekintzan oinarritutako irakaskuntzari, eragiletzari eta autonomiari buruzko artikulu batean, nabarmendu egiten du "eskaintzen" edo ekintzarako gonbidapenen garrantzia, "ekintzarako pertzepzioa" funtsezkoa delarik (van Lier, 2004, 97. or.). Larsen-Freemanek eta Todevak (2022), hizkuntzak ikasteko orduan konplexutasunak duen garrantzia dela eta, CDST iradokitzen dute ekintzara bideratutako ikuspegi eleaniztunerako esparru teoriko gisa, Piccardok bezala (2017). Bourguignonek dioenez, hizkuntza irakastearen eta ikastearen errealitate berria konplexua da (2006, 61. or.).

Errealitate horrek, EEMBak dioen moduan, kanpoko eta barneko alderdiak ditu. Edozein egoeratan, "esan nahi dena" –Hallidayren "esanahirako potentziala" [*meaning potential*] 1973, 1978)– bi faktoreen arteko harremanaren arabera da: a) kanpoko faktoreak (sozialak) eta b) barneko faktoreak (banakakoak) (2001eko EEMBa, 4.1.3-5 atalak). Richerrek (2009, 2012) EEMB ereduaz eta gaitasunaz dioenez, *pouvoir agir* [kanpoko faktoreak] eta *vouloir agir* [barneko faktoreak] funtsezkoak dira gaitasunaren kontzeptu dinamiko batean. Piccardoren ustez (2012), kanpoko/barneko harreman hori erdigunean jartzeak funtsezko bihurtzen du bitartekotza, Vygotskyk eta ikuspegi soziokonstruktibista/soziokulturalak emandako zentzuan, baita gaur egungo hezkuntza-teoria konbentzionalean ere. Horregatik, EEMBaren 2020ko bertsioak askoz zabalago hartzen du bitartekotza: ikus Piccardo aurrerantzean eta Piccardo, North eta Goodier (2019) eztabaidarako. Lotura zuzena du, halaber, ingurune eskaintzekin (ondoren eztabaidatuko da), eta hizkuntza erabiltzea/ikastea, edozein gaitasun erabiltzea, *kokatua* izatearekin. Piccardok eta Northek (2022, 88. or.)⁶ dioten moduan:

eragiletza [*agency*], *praktika-komunitateak*, *adimen kolektiboa* eta *kokatutako ezagutza* [*situated cognition*] kontzeptuek argitu egiten dute irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua oro har, eta ahalmen handia dira EBlak [ekintzara bideratutako ikuspegiak] bultzatzen duen hizkuntzen irakaskuntzako kontzeptualizazio berritzailea ulertzeko. Kontzeptu horiek, ekintzaren teoriarekin batera, osatu egingo dute EBlaren marko teorikoaren argazki koloretsua.

6. EKINTZARA BIDERATUTAKO IKUSPEGIAREN FUNTSEZKO ALDERDIAK

Aurreko bi ataletan esan bezala, ekintzara bideratutako ikuspegiaren funtsezkoak dira posibilitateak, eragiletza eta atazak. Atal honetan, xeheago aztertuko dugu horietako bakoitza.

6.1. POSIBILITATEAK

Posibilitateak ekintzarako aukerak dira (Käufer, Chemero, 2015, 166. or.) eta inguru-neak gizarte-eragileari *ekitera deitzen dio* (Dreyfus eta Kelly, 2007, 52. or. jatorrizko testuan nabarmenduta). Ez dira ekintzarako aukera hutsak, gonbidatu egiten gaituzte. nahiz eta eskaintzek guri deitzeko hauteman egin behar ditugula dioten (Withagen et al., 2017, 16. or.) eta posibilitate guztiak ez direla hautematen, lehenik eta behin, ataza batean lanean ari denak posibilitate esanguratsuei bakarrik erreparatzen dielako. Posibilitate esanguratsuak bakarrik hartzen dira gonbidapentzat Käufer eta Chemero-ren

⁶ Editorearen oharra.

Jatorrizko argitalpena 2019koa da, ingelesez. Itzulpen Saila bilduman, euskaraz, 2022an argitaratu zen.

hitzetan (2015, 203. or.), baina, batez ere, denok ez gaudelako etengabe erne, bereziki eskola-ingurunean.

Beraz, Van Lierrek ikaskuntza-inguruneetan "ekintzarako potentziala" [*action potential*] eman beharra nabarmentzen du (2004, 92. or., Hallidayren "esanahirako potentziala" eta "pertzepzioa ekinean" sustatzea (2004, 97. or.). Van Lierrek dioenez (2007, 53. or.), ikuspegi ekologikotik, hizkuntzak *eragile gisa ikasteak* zera eskatzen du: posibilitateak (aukera-harremanak) hautematen ikastea gertaera komunikatibo multimodaletan; gai bakoitza "posibilitate-sare" bat da eta *ekintza kolaboratiboaren* bidez eskuratzen da (artikulugileak nabarmendua).

Ondorioz, ikasleei inputak eman beharrean, hartzaile pasibo gisa, posibilitateen paisaia aberats baten aurrean jarri beharko lirarteke, gizarte-eragile gisa ataza/proiektu kolaboratiboetan, eta horiek hizkuntza sortzea sustatuko dute (Piccardo eta North, 2002, 110-111. or.). Posibilitate aberats horiek hizkuntza sortzea ere sustatuko dute, posibilitateak baitira sormen-teoria nagusietako baten osagaiak (Glävenaturen "Bost A" sormen-teoria [*Five A's*]), non kokatutako jardueretan posibilitate berriak hauteman, ustiatu eta "sortzeko" prozesu gisa defini daiteke sormena (Glävenau, 2012, 196. or.). Piccardok (2017) dioenez, konplexutasun-teoriek, teoria ekologikoen eta sormen-teoriek elkarri eragin, esparru teoriko bat sortu eta aberasten dute *hizkuntzatze [languaging]* kolaboratiboa (gauzei buruz hausnartzea: Swain, 2006; Cowley eta Gahrn-Andersen, 2018) eta eleantuntzea (Lüdi, 2015, 2016; Piccardo, 2017, 2018), ekintzara bideratutako ikuspegian.

Liburu Osagarriko bitartekotzaren deskriptoreek "seinaleak" ematen dituzte, hizkuntzatze kolaboratiboa esplizituagoa eta, beraz, eraginkorragoa izan dadin.

6.2. ERAGILETZA

Pentsamendu soziokonstruktibista/soziokulturalean, ikasleak agentetzat hartzen dira eta beren ikaskuntzaren nondik norakoak eta baldintzak eraikitzen dituzte (Lantolf eta Pavlenko, 2001, 145. or.). Hala ere, testuinguruko posibilitateek erraztu nahiz mugatu egiten dute eragiletza. Eragiletzari buruzko ikerketetan, gaur egun, pertsonak testuinguruei eragiteko gai dira, haien aurrean erantzun bakarrik egin beharrean, etengabeko kausalitate-harremanak daude eta gizartearen eta norbanakoaren arteko elkarreragin dinamiko konplexua dago (Mercer, 2011, 428. or.), EEMB ereduko gizarte-eragilearen antzera, dauzkan eskaintzen arabera hautematen eta jarduten baitu. Larsen-Freemanek dioenez (2019, 65. or.), pertsonak ez du berezkoa eragiletza; ez dago homunkulurik⁷ edo jokabidearen erantzule den jaiotzeko barne-programarik. Aditu horren esanetan, sistemaren barneko eta kanpoko faktoreen harreman dinamikotik sortzen da eragiletza, eta elkarrekiko harreman iraunkorraren bidez bakarrik irauten du

Mercerrek (2011, 427. or.), ikasle batekin egindako kasu-azterketa sakon bati buruz dioenez, motibazioak, atxikimenduak (interesak, gustuak/nahiak) eta autorregulazioak "kontrolatzen" dute ikaslearen eragiletza. Larsen-Freemanek (2019) bezala, honako hau ondorioztatzen du Mercerrek (2011, 435. or.): eragiletza zenbait osagaitako sistema konplexua dela eta osagai horietako bakoitza sistema konplexu dinamikotzat har daitekeela. Aditu horren arabera, sistema konplexuko osagai bakar batek ere ez du eragiten Joanaren (aipatutako kasu-azterketako subjektuaren) eragiletza; elkarri lotutako hainbat zergati daude, garrantzi aldakorra dute eta ezin da jakin nola eragingo dioten elkarri.

Hortaz, eragiletzak bi alderdi ditu: gizartea/ingurumena eta gizabanakoa (horregatik esaten zaio "gizarte-eragilea"). Bi kontzeptu horiek daude berriz ondorengo azpiataletan.

6.2.1. Soziala

⁷ Editorearen oharra.

"Homunculus" jatorrizkoan; latinezko hitz honen esanahia "gizontxo" da, miniaturazko gizakia alegia.

Gizarte-eragileek testuinguru sozial jakin batean erabiltzen dute eragiletza, eta horrek baldintzak eta mugak ezartzen ditu. Eragileak jardun dezakeen egoera-motaren posibilitateak definitzen du "esan nahi dena" (*pouvoir agir*, Richer, 2009, 2012): "esanahirako potentziala" (Halliday, 1973, 1978) edo "ekintzarako potentziala" (van Lier, 2004), van Lierren ustez posibilitateak direnak.

6.2.2. Eragilea

Gizarte-eragileak egoeraren posibilitateak hautematen dituenean, bere baliabide/gaitasun guztiak mobilizatzen ditu (kognitiboak, emozionalak, linguistikoak eta kulturalak), eta ataza osatzeko estrategiak garatzen ditu, iterazio-zikloetan, ekintza planifikatzeko, saiatzeko, emaitzak sortzeko eta monitorizatzeko. Banduraren arabera (1989, 2001), oinarritzko lau ezaugarri ditu eragiletzak:

- a) *Intentzionalitatea*: ekintza-plan bat, partzialki pentsatua, informazio eta/edo esperientzia berrietara egokitua ataza egiteko prozesuan.
- b) *Aurreikuspena*: ondorioak kontuan hartzea, emaitzak iragartzea eta ekintzak hautatzea, esperientzian oinarrituta.
- c) *Autorregulazio-prozesuak*, pentsamendua eta ekintza lotzen dituzten helburu zehatzen inguruan: Norabide egokian goaz? Helbururantz goaz?
- d) *Autogogoeta* norberaren ideiez eta ekintzez, emaitzen arabera: gure ekintzak (edo helburua) doitu behar al ditugu?

Bere teoriaren ondorengo bertsioetan, Bandurak dioenez (2008), eragiletza kolektiboa eta kolaboratiboa izan daiteke, indibiduala izan gabe, eta bere eredu hiru alderdi hauetan sinplifikatzen du (2018): *aurreikuspena*, *autorreakzioa* (autorregulazioa) eta *autogogoeta*. Banduraren arabera, eragiletza handitzea da prozesu horiei jarraituz arrakasta izatearen emaitza, *autoefikaziaren* bidez edo etorkizuneko arrakastan sinetsiz.

Larsen-Freemanek dioenez (2019), eragiletza *dinamikoa* da: iterazio bidez garatzen da (espazio seguruak daudelarik zirriborroak sortzeko, saiatzeko, eta antzeko atazak errepikatuz), eta beste egokitze-sistema konplexu batzuetara egokituz, hau da, beste erabiltzaile/ikasleengana egokituz, elkarlanean ari direnean testuinguru kolaboratiboetan. Bandurak azpimarratzen duenez, eragiletza indartzen du autoefikaziak: norberak arrakasta izan dezakeen uste motibatzaileak, esperientzian oinarrituak.

Beraz, eragiletzaren teoriak zuzeneko ondorioak ditu ekintzara bideratutako ikuspegiari:

- Ikasleei helburu zehatzak eman dakizkieke, ataza zehatzetarako hautatutako EEMBko "gai da" deskriptoreen bidez; halako helburu zehatzak hobeak dira xede lausoak baino.
- Arrakastan sinesteak motibazioa indartzen du, eta hori aurreko arrakastek areagotzen dute.
